

## Zuzenaren aldeko desobedientziaz

JOKIN APALATEGI

UPV/EHUko irakasle ohia

### (On disobedience for justice)

DOI: 10.1387/gogoa.20357

#### Abstract

*The «healthy» citizen needs to know how to obey and order and has to develop the acceptance and capacity for both, because their most characteristic ability is to acquire, by knowledge, these two dimensions of the governance of free humans. In politics there are people who govern and people who are governed, of course, but this binomial should not be understood as the concurrence between the active and the passive in economics; since, in democracy, governors and governed do not correspond to dominant and dominated. We are not in the field of economic relations, and so it is not something like the exchange between master and slave. In the field of economics, in the binomial the difference in hierarchy and unilaterality are present, whereas, in politics, we value the influence the person with authority has towards their equals, and, we take equality as reference. In this work, when talking positively about disobedience in opposition to obedience, we take it as a response against the hypocritical correctness established in the irrational world we live in. Then, from the study of the stylistics of obedience, we will arrive to the stylistics of disobedience. For that aim, it is indispensable to redefine various notions, such as dependence, acceptance, conformism, etcetera, and to bring back to public attention the right to resistance, to conscientious objection, to rebellion, and so on. Democracy is not only an institutional form that appears characterized with proper practice and behaviour, but also a practice that is inspired by freedom, pluralistic acceptances, and the defense of decisions made by the majority each time. We should not forget, however, that democracy expresses the ethical tension that rises in the heart of each citizen; that is to say, that it is the result of the demands fed from the principles of the universal justice and from the most internal part of the political self to clarify politics and redefine the public initiative.*

**Keywords:** *obedience-disobedience, civic dissidence, right to resistance, ethical duty, refusal to force, free collaboration, rebellion.*

## Laburpena

*Herritar sanoa obeditzen eta agintzen ikasia izan behar da eta bietarako onarpena eta ahala landu behar ditu. Herritarraren gaitasunik propioena baita gizaki libreen gobernamentuan gurutzatzen diren bi alor horiek ezagutzuz bereganatzea. Politikan gobernatzaileak eta gobernatuak daude, noski, baina binomio hori ez da ulertu behar ekonomian aktiboaren eta pasiboaren artean dagoen lehia bezala. Demokrazian, gobernatzailea eta gobernatua ez baitira dominatzailea eta dominatua. Ez gaude harreman ekonomikoen alorrean, eta ondorioz, ez da nagusi eta esklaboaren arteko truke baten gisakoa. Alor ekonomikoan binomioaren barnean desberdintasuna, hierarkia eta unilateralitatea nabarmentzen direnean, aldiz, harreman politikoen alorrean agintea duenak berdina duen norbaitengan daukan eragina baloratzen dugu, eta, berdintasuna erreferentziatzat harturik, bera bezala gizaki libre direnei zuzentzen ari dela erakusten dugu. Lantxo honetan desobedientzia obediencia-ari oposatuz baikorki aipatzean, itxurakeriaren eta bizi dugun mundu irrazionalaren aitzinean sortzen den zuzenaren aldeko erantzun-jarreratzat hartzen dugu. Orduan, obediencia-aren estilistika ezagutzetik igaroaz desobediencia-aren estilistikara helduko gara. Horretarako, ezinbestekoa da menpekotasuna, onarpena, korformismoa, eta abar berdefinitzea; baita erresistentziarako eskubidea, kontzientziatzko eragozpena, oldartzea, eta abar berplazaratzea ere. Demokrazia, praktika edo jardunbide egokiz karakterizaturik ageri den forma erakundetiar bat ezezik, askatasunen, pluralitatezko onarpenen eta une bakoitzean gehiengoz hartzen diren erabakien defentsan inspiraturik gertatzen den jarduna baita. Baina ahortzi gabe, aldi berean, demokraziak herritar bakoitzaren bihotzean sortzen den tentsio etikoa ere adierazten duela; hots, politika berregitzeko eta ekimen publikoa etengabe berdefinitzeko justizia unibertsalaren printzipioetatik eta banako politikoen barreneatik janaritutako eskakizunen emaitza dela.*

**Gako-hitzak:** *obediencia-desobediencia, disidentzia zibikoa, erresistentziarako eskubidea, betekizun etikoa, bortxaren ukoa, kolaborazio librea, errebelamendua.*

## Sarrera

Argi dago gizartearen enborra agintean datzala, eta harentzako hauspoa obediencia-desobediencia mugimenduetatik eratortzen dela. Desobediencia-aren orduan, gutxienetik obediencia-aren itzala ageri da beti. Ezin dira, bada, bata besteagandik bereizi, ezta bat baztertu eta ahortzi ere, euren artean daukaten ezinbesteko harremana aitortu gabe. Obediencia-ak, bere aldetik, aldian aldiko agintearekiko onarpen-termometroa ere seinalatzen du. Obeditzera bultzatzen gaituenak gurekiko leuken nagusitasunaren erreferentzia baieztatzea atzematen du. Horregatik, obeditzea agintzen duenaren nahia bete edo esana egitea da ezereen gainetik. Eta obediencia-aren betekiki-

zuna bestek aginduari amore ematean datza. Desobeditzea, berriz, ezeren eta inoren gainera norbera politikoa erreferente egitean datza. Baina zerk egiten du esaneko bilaka gaitzen? Gure gainera dagoenak nonahi eta beti agintzen duena bete beharra al dago? Desobedientzia eginkizun etiko bihur al daiteke?

## 1. Definizioan murgilduz

Obeditzera bultzatzen gaituena zer den ulertzeko, aginduaren aitzinean aurkitzean, dauzkagun hainbat jokabide- eta jarrera-aukera ebaluatu behar ditugu. Gure jarrera, hasteko, aginduak ematen dituenaren aurrean, makurtzekoa denean, menpekotasuna kultibatzen dugu. Horrela, jarrera hori gudan nagusitzen denean menpeko bilakatzen garenon nolakotasuna edo egoera adierazten dira. Ñabardura batzuk bide, aski hurbil dago ere konformismoa. Eta, definitzen hasirik, esango genuke ohitura eta usadioak ordezkatuz erabiltzen dituenarekin konformatzeko eta gizartearen edo gehiengoaren balore eta arauak onartzeko joeran datzala. Areago aginduari aurrera egiteko baimena ematearena letorke. Honela, zerbait egitea edo ez egitea zilegi edo onargarri den erabakitzea bere esku duenak, norbaiti horretarako duen eskubidea aitortzen dio. Are eskubide horren adierazpena den esaldia edo agiria emateko luzamena daramakio. Eta zenbat eta aurrerago egin ildo horretatik, orduan eta ziurrago helduko gara betebeharrera, eginbeharrera eta horretarako nahitaezko diren baldintzetara. Eta, ondorioz, menpekotasunean bete-bete murgilduko gara.

Obeditzeak faktore horiek daramatzala dakigunean, eta orduan bakarrik, desobedientziaren forma nagusiak zeintzuk izan daitezkeen ezagutzen ahalko dugu. Adierazia baitugu ezinbesteko harremanean jarduten dutela nola bata ala besteak. Honela bada, banan-banan izendatuz desobedientziaren forma nagusiak definitzera igaroko gara.

Lehena **matxinada** dugu. Agintaritzaren aurkako herri-altxamendua edo jazarraldia izendatzen da horrela (Klaudio Harluxet Fundazioa 1998: 664). Historian zehar XVII-XVIII mendeetan Europa osoan aldaketa ekonomiko, politiko eta sozial sakonen orduan sortutako matxinadak arras ezagunak zaizkigu. Euskal Herriari dagokionez, adibide gisa oso aipatuak izan diren batzuk izendatuko ditugu bidenabar. Gatza produktu guztien oinarrian zegoen garrietan etengabeko manipulazio-jokoak sortzen ziren edozein unetan. Horien artean bat aipatzekotan, Euskal Herrian gatzaren altxamendu gisa ezagutzen dena dago; 1631-1634. urteetan gertatu zena, hain zuzen. Bizkaiko jaurerrian kokatu zen bereziki. Laburbilduz, aipa dezagun altxamenduen arrazoa eta bilakaera. Bizkaiko nobleziak Gaztelako koroarekin harreman onak izanik, honen gerra-gastuak nekazariei zergak ezarriz jasotako diruarekin estaltzen zituen. Gertakizun honek gizartean ondoeza sortu zuen.

Erregeak jaurreriko gatza gordetzeko eta saltzeko baimena Erret Haziendari bakarrik emateko agindua eman zuenean, Gernikako Batzarrak bildu eta kontraforu-baimena aplikatuz gatza ez gordetzea erabaki zuen (1631). Hurrengo urteetan zerga berriak ezartzen saiatu ziren, eta gatazka areagotu egin zen. Altxamendua zapaldu egin zuten: sei buruzagi atxilotu eta epaitu zituzten, eta heriotza-zigorra ezarri zitzairen.

Beste bat 1718an gertatu zen. Gaztela eta Euskal Herriaren arteko mugak itsas portuetara edo Frantziako mugara eramatea agintzen zuen kontraforu-dekretuaren aurkako matxinada moduan ezagutzen da. Foruen errespetua argudio gisa erabiliz, interes sozioekonomikoan oinarritutako altxamendua piztu zen. Nekazariak, zenbait produktorengatik aduana-zerga ordaintzearen kontrakoak izaki, Bilbora joan eta dekretua ezeztatuko zukeen dekretu berria sinarazten saiatu ziren alferrik. Bizkaia eta Gipuzkoako zenbait jauntxok jabeagoak utzi eta ihes egin behar izan zuten. Errege-tropak Bizkaian sartu eta egoera kontrolatu bitartean, arpilaketa ugari gertatu zen. Altxamendu ondoko zapalketa gogorra izan zen, baina nekazariak lortu zuten zenbait produktu zergatik libre uztea.

Era berean, aipagarri dager, 1766an, Gipuzkoan gertatu zena. Zerealen prezio altuak eta merkatariak biltegian zuten zereala saldu nahi ezak sortutako eskasiaren ondorioz piztutako matxinada izan zen. Gipuzkoako zenbait tokitan herritarrek zereala bahitu eta jauntxoak zereala merkatzera behartu zituzten. Beste herri batzuetan, jauntxoek aurrea hartu eta herritarrek ekin-tzarik egin aurretik dekretuz jaitsi zituzten prezioak. Altxamenduari amaiera emango zion armada sortu zen Donostian —Irun, Erreterria eta Donostiako merkatarien laguntzarekin—, eta matxinatuek indar handia zeukaten Azpeitia eta Azkoitiara abiatu eta zapaldu egin zituzten.

Azkenik, Hazparnen 1786an egin zen matxinada gogoratuz itxiko dugu aipamen hau. Deigarria eta aurrelaria gertatzen da benetan Hazparnekoa, zeren emazteek protagonismo osoa izan baitzuten. Eurak bakar-bakarrik atera ziren kalera, nahiz eta kronika zaharrek dioten etxeko leihoetatik gordezka behatzen zituztela gizonek, laguntza behar izanez kaleratzeko prest egonez. Frantziako Erregearen inposa-biltzaile zen Monsieur De Nevillek gatzaren gaineko inposa goititu nahi izan zuenean gertatu zen. Gatza eta gatzaren inguruko ekonomia funtsezko elementua baitzen orduko gizar-tean. Eta inposa-aldaketa horrek porrotera zeramatzan bizimodu horretatik bizi zirenak.

Bigarren desobedientzia-forma **errebelamendua** litzateke. Aurreko figuratik bereizketa egin nahirik jarrita, zera seinalatuko genuke: aldiari aldiko Gobernuaren aurka publikoki agertuz Estatuko barne-segurtasunaren instantzietatik desafiotzat hartzean gauzatzen dela. Estatuaren agintea desafiatzeko jarrera da, orduan, nahiz eta areagoko akziorik ez gauzatu.

Hirugarrena **haustura** dugu. Osorik edo zerbaiti loturik zegoena moztu eta suntsitzeraino joan liteke akzioa. Mesprezioa eta gorrotoa aurki genezazke horrelako akzioaren egileengan. Erresistentziaren azken muga da, eta materiaren lege bat gizarte metaforatzat erabiliz, eskuarki elastikotasun-muga gainditu ondorengo fase plastikoaren hurrengoa dela esango genuke. Pieza bat bitan banatzeko beharrezko eta nahikoa den indarraren balioa adierazten du.

Laugarrena alor politikoan zuzen-zuzenean kokatzen gaituen zerbait da. **Desobedientzia zibilaz** ari gara. Ez da desobeditze soil bat. Azken hau egoismoz, alferkeriaz edo negozioz gerta daitekeenean, aldiz, desobedientzia zibila beste natura eta plano batekoa izanik, gure eskaintza gizatiarraren emarira garamatzana baita. Definizio zorrotz bat eman nahiz zera dela adieraziko genuke: lege, arau, erakunde edo botere-instantzia baten zuzengabeko aginduetara oinperatzeari publikoan emandako ezetz onartua, alegia. Eta ezetz hori borroka baketsua izango denaren arma bakarrean bilakatzen da. Azpimarra dezagun, azkenik, desobedientzia zibila izaeraz kolektiboa dela. Eta gizarte bateko multzo adierazgari baten jarrera eta jorkabidea litzatekeela. Hain zuzen, kalitate honek bereizten du bosgarren gisa aipatuko dugun disidentzia zibikotik, zeina gizabanakoarena baita sorburuan.

Bosgarrena aurrekoaren osagarri den **Disidentzia zibikoa** litzateke. Ezarrita dagoen ordenako hainbat elementurekin ados ez dagoenaren nolokotasuna edo jarduera salatzean datza. Eta, ondorioz, giza talde, ideologia, sinnesmen nahiz kultur mugimendu baten arauetatik aldentzen dena edo erregimen politiko autoritario edo dogmatiko batekin bat etorri ez, eta, has-teko, pertsonalki aurre egiten diona seinalatzen du.

Ondorio gisa, esan dezagun, azken bi hauekin jarraituko dugula gure saioa.

## 2. Desobedientzia planteamenduen ibilbidea

Desobedientzia zibilaren esaldia Henry David Thoreauk plazaratu zuen, 1849an, «Desobedientzia zibila» entsegua argitaratzean. Autorea pairatzen ari zen arazo batean izan zuen jatorria: Mexikoren aurka Ameriketako Estatu Batuek zeramaten gerra finantzatzeko tasa ordaintzeari uko egitearen arrazoiak argitzen ari zela heldu baitzen, hain zuzen. Horrela, botere hark zeraman gerra sustatzen jarraitzeko, ordaintzeko eskatzen zieten, tasa haiek injustuak zirela eta, botere haren konplize ez izan nahiz, kooperatzeari uko egitean, botere hura borrokatzera igarotzen zela erakutsi zuen.

Baina, autore honen pentsamendua jorratu aurretik, igaro gaitezen desobedientzia zibilari buruz giza historian dauzkagun arrastoak labur-

bilduz aipatzera. Erromatarren zuzenbideak *jus resistendi* (erresistentziarako eskubidea) kontzeptua barne zuela gogora ekarriko dugu hasteko. Eta, gai horren inguruko diskurtso esplizituaren bila jarriko, berriki egindako mahai-inguru batean, Alain Refalok (2006) emandako lau iturri historiko izendatuko ditugu.

1. Desobedientziazko jarreraren eztabaida dakarten antzinateko iturriak eta gertakizun sinbolikoak daude lehenik. Besteak beste, gure aroaren aitzineko 439an Sofoklesek idatzitako *Antigona* obra daukagu. Bertan bete beharrezkoak diren lege ez-idatziak ere badaudela erakusten zaigu. Baina hor dago ere Platonek Sokratesi buruz kontatzen diguna: zikuta edatera kondenatuta zegoela, hil bezperan, Kriton joan zitzaioela bisitari eta eskapatzeko proposamena egitera. Sokratesen erantzuna hau izan omen zen: jarritako zigorra injustua izanik, salatzeke metodorik onena hiltzeko prest zegoela erakustea zela, eta ez zela ihes joango. Sokratesentzat legeak desobeditzea bizitza egokitik eskapatuz injustizia egitea litzateke. Horrela jardutean, konprometitua zegoen Hiriko legeak hautsiko zituelako. Bere buruari, azken funtsean, kalte egingo ziokeelako. Besteei bidegabeke-ria ekarriko ziokeelako. Hadesen legeen kontra joango zatekeelako. Hitz gutitan esanda: Sokratesek desobeditzea baztertzen du, eta Justiziazko bizitzaren betebeharren arabera bizitza egokia onartzen du. Filosofoak Egiak bakarrik dakarren bizitzako benetako neurria atzematen du.
2. Intsumisioaren eta kontzientzia-eragozpenaren eskubidea fundatu zuten iturri espiritualek. Kristautasuna praktikatzan zuten artean, hasieretan, hainbat intsumisio-ekintza egon zen Enperadorearen aginduen injustizia salatuz, nahiz hori heriotzarekin ordaindu behar izan hainbatek. Origenes (1885-254) eta Tertuliano (155-222) Eliza Gurasoen idatziak dira III. mendean gertakizun horren lekuko hoberenak.  
Arras deigarria da ere, 1652an, Britainia Handian, George Foixek sortutako «Quakeroen Gizarte Elkartearen» jarrera, zeinak Pennsylvanian, 1673an, William Pennek sortutako Estatu berrian, «kontzientzia-eragozpena» legeztatzea lortu baitzuen.
3. Kooperazio-ukoaren printzipio eta zapalkuntzaren aurrean beti erresistentzia landu zituzten iturri filosofiko eta politikoak daude. Gai-neretiko guztien gaineratik La Boetie (1530-1563) eta Argien filosofiako kide izan zen John Lockeren (1632-1704) obra aipatu behar dira, besteak beste, desobedientzia zibilaren aldeko jarrera defenditzeagatik.
4. Gaur egunetako desobedientzia zibilaren pentsamendua jorratu zuten aitzin-iturri garaikideak Henri Davis Thoreau (1817-1862) eta Leon Tolstoï (1828-1910) lirateke.

### 3. Gogoetagle eredugarrienen argudioak

1. Desobedientzia zibilaren pentsamendu modernoa bidea egiten nola joan den jakiteko, xv mendean, **Etienne de La Boetieren** «Discours de la servitude volontaire ou le contr'un» obran dagoena aztertzeak hasi behar da, lehenik. Ondoko bere esaldi borobil honek jada argi uzten du haren pentsamenduaren muina: «Soyez résolu à ne plus servir et vous voilà libres» («Gehiagoz morrontzarik ez deliberatzean libro izanen zarete»). Baina saia gaitzen haren tesi nagusia zehatzago aztertzen. Zer erakusten digu? Tiranian sakondu nahiz ari dela, haren eraginez askatasun gabe eta erabakiak hartzeko orduan bazterturik aurkitzen diren subjektuek duten jarrera aztertzeraz igarotzen da. Eta galdera aztoragarri bat eginez bere buruari erantzuten dio: «nola esplikatu daiteke hainbat gizakik, hainbat herriskak, hainbat naziok bakarrik eta ematen dioguna baino botere gehiago gabe dagoen tirano bat jasaitea eta onartzea?». Paradoxa badirudi ere, «borondatezko morrontza» dela konstatatuz gogoeta-gai bihurtzen du. xvi. mendean, bada, argi eta garbi adierazi zuen estatu baten boterea biztanleria kooperatiboan oinarritzen dela. Honela, bada, herri batek bortxarik gabe desobedientzian jardutea aukeratuz, zuzengabeko estatuaren hondamendia probokatzen ahal du, eta, ondorioz, askatasunaren emaitza atzeman berriro. «Nondik nora zen heldu zuzengabeko estatua?», galdetzen dio bere buruari. Esplikatzeko, gizarte bati zorizaiztoa ekar lezaiokeen gizakia jokoan jartzen du. «Malencontre» kontzeptuaz definitzen du gertakizuna. Istripu tragiko bat litzateke, zeinetan abiapuntuko suerte txar batek aurrez zegoen egoera sanoarekiko memoria ezabatuko lukeen, eta, ondorioz, bizia zen askatasun-desira morrontzaren maitasunak ordezkatzeko luke Askatasun-egoeratik morrontzarako pasaia «beharrezko» izan gabe gertatu zen gizartean, eta ondorioz baieztatu dezakegu gizartea agintzen eta obeditzen dutenen artean zatikatua aurkitzea behin-behineko hutsa dela. Estatuaren sorrera gizakiaren historian haustura galgarri bat litzateke. Hortik sortuko den gizaki berria desnaturatua legoke, zeren morrontza natura-egoeraren aurkakoa baita. Izan ere, nehork ezin dezake ukatu Jainkoaren lehen eragile den naturak molde berean egiten gaituela guztiok, eta horrek adierazten digu ere denok berdinak edo senideak garela. Ondorioz, natura-egoerak denok berdinak izateko eginak gaitu eta nehork ez luke botererik ukan behar besteengan. Morrontzaren uko borobila aldarrikatzen du orduan.

2. **John Lockerekin** (1632-1704), pentsamendu liberalean toki berezia hartzen du «giza banakoaren soberaniak». Gazte-gaztetatik jakintzara emana, ingeles-gizarteko munduan jakintsutzat begiztatua eta hainbat bereizgarriekin saritua izan zen. Pentsamendu-mailan interes berriak sortzeko, hala ere, funtsezko gertatu zitzaizkion 1675etik hiru urtez Montpellier, Toulouse, Bordeaux eta Parisen egin zituen egonaldiak. Besteak beste, Deskartesaren obra frantses bertsioan irakurri zuen, bere gogoetetan berbideratzeko balioko zion talka-eragina jaso zuen. 1679an Ingalaterrara itzultzean Shaftesburyk bozkarazi nahi zuen Habeas Corpus legearen eztabaidarekin aur-

kitu zen; «epaiketarik gabe inor ezin da kartzelatu» dioenarekin, alegia. Ez da ongi ezagutzen Lockek horretan ukandako parte-hartzea. Dakiguna da, eta ziurra da orduan, 1679-1683 urteetan hasi zela lehen «Tratatua» idazten, geroago «Gobernu zibilari buruzko bi tratatu» gisa famatu egingo den obra, hain zuzen.

Holandara joanik, han deserriratu moduan bizi ziren ingelesekin harremanetan sartu zen. Berehala ingeles gobernariak *Christ Church* zeukan kargutik bota eta holandar gobernuak preso hartu behar zituenen zerrendan sartu zuten. 1685 arte ostenduta bizi beharko zuen. «Glorious Revolution» gertatzean, 1689an, berriro Ingalaterratu zen. 1688/1690ean «Gobernu zibilari buruzko bi tratatu» obra argitaratu zuen. Eta 1689. urtean «Giza adimenari buruzko saiakera» obrarentzat argitaldaria topatu zuen. Gainera, beste hainbat eta hainbat obra gehiago heldu ziren ondotik.

Politikari buruz darabilen ardura nagusia zera da: gizabanakoen askatasuna galdu gabe pentsa al daiteke botere politikoaren erakundetzea? Natura-egoerako gizakiak izanik gizartearen propietario bakarrak, estatuaren eginkizuna oinarrizko den horren bermatzaile izatera mugatu behar da gizartean. Honela, «*Traité du gouvernement civil*» obraren VII. atalean, «segurtasun politiko edo zibiliaz» ari dela zera dio: «gizakiak naturaren estatutik ateraz, eta gizarte politikoan sartuz, epaileak (botere judizialak) eta lurreko subiranoak sortu eta ezartzen direnean, gizarteko kide bakoitzarekiko liskar (botere exekutiboa) eta irain guztiekin amaitzeko agindua ematen zaie; eta, gizabanakoen kopuru batekin aurkitzen garen toki bakoitzean, elkartzeko ukan dituzten arrazoi desberdinak arrazoi, horien artean botere erabakitzaileak ez dagoen bitartean, aurkitzen dugun egoera naturaren estatu gisa hartu behar da». Ondorio nabarmena atera behar da: **herritarren adostasunean dago oinarritua gizartea eta subiranoak legeak betetzen ez baditu, zilegi da herritarrek haren aurka asaldatzea.**

Hala ere, dena ez zen argi dizdiratsua ikuspegian gizaki-baldintza orokorrari so, zeren gizakiak libre eta esklaboetan bereiziz, azken hauek pairatzen zuten egoera ontzat eman baitzuen. Arraza- kriterioa presente zegoen bere pentsakeran. Hara hemen aipamen bat. Honela idazten du «*Juje zibila*» (1660) obran: «Gizaki hiritarren eta esklaboen baldintza ez dute ezertan aldatu erlijioak eta kristau askatasunak, Kristoren hitzarmenpean egonik ere, berdin zibilki esklabo izaten jarraitzen baitute, eta euren nagusiei lehen bezalako obediencia zor diete». David B. Daviden (1975) iritzian, Locke dugu azken filosofo handia esklabotasun betikorra eta absolutua justifikatzen.

Emakumearen naturazko egoera aipatzean baieztatzen duena ez da hobe. 1706an, «*Paraphrase and Notes on the first Epistle of St Paul to the Corinthians*» aztertzen ari dela zera dio, gizakiaren banako askatasunak ez duela emakumezkoa estaltzen, zeren emakumea beti gizonaren menpeko izango omen baita.



3. **Henry David Thoreau** (1817-1862), Massachusettseko Concord hirian sortu eta hil zen. Jatorri eskoziarra eta frantsesa zituen idazle amerikar honek ondoko gisan agertu zuen bere bizitzari ematen zion zentzua: «mundu honetara heldu banaiz, ez naiz bizitza mereziko lukeen toki bat antolatzerara etorri, bizitzera baizik». Desobedientzia zibilaren gaia zehazki landu zuen lehen pentsalaria dugu bera. Bere obra nagusia, «Walden edo Oihaneko bizitza» (1854), naturaz, ekonomiaz eta bizitza xeheaz intzira baten biziaz idatzi zuen. Hala ere, ez da balio gutxiagokoa «Desobedientzia zibila» izenez garaiko autoritate esklabistak salatzeke idatzi zuen obra. Gaurko gure saioan azterketa-gai dugun obra, hain zuzen. Garaian indarra zuen kristautasuna sineskeriatzat eta «lege gorenak» egiteko orduan bere garaiko politikoei erakusten zuten jarrera koldartzat emanaz, Gobernuaren injustiziei aurka egiteko **kolaborazio-ezetik** eramandako gizartearen erreforma morala aurreikusten du, eta, horretan, garai hartako William Lloyd Garrison abolizionistarekin bat egiten du diagnostikoan, nahiz eta aktibitate eta antolamendu sozial orotatik at gordetzen duen bere burua. Era berean, geroago, John Brownek abolizioaren alde matxinada saio bat egin zuenean, Thoreauk, «salbatzaile» kontsideratuz, publikoki sostengua adierazi zion. Honela, bizitzaren amaieran, «Amerikar gerra zibilaren» bezperetan, geroz eta hedatua goa eta handiagoa zen aburu publikoarekin ados, esklabotasunaren abolizioa indarkeriaz bestela ezin zela gainditu pentsatzera ailegatu zen, baina, orduan ere, areagoko inplikazio pertsonalik erakutsi gabe gelditu zen.

Thoreauk «bortxa-ezaz» hainbat gogoeta idatzita utzi zuen bere egunkarian: «soldadua heroi endekatu bat da»; «hiltzeko edo hila izateko prest dagoen gizabanakoa zoroen ospitalera igortzeko egokia da», eta abar, eta abar aurki daiteke. Baina justiziaren bere ideala Amerikar Independentzia Gerrako abertzaleen istorioez eta antzinateko pertsonaien balentriez janarrituta dago. John Brownek 1859an erakutsitako kuraia eta zaletasuna aupatzen ditu, zeren esklabotasuna desagertzeko modu egokitza ematen baitzuen ekintza armatuz eta bortxa heroikoz egindako borroka.

Thoreauren idatziek distira handia lortu zuten hil ondoren. Eta hain handia eta nabarmena izan zen hori, non Gilles Farcetek (1986) haren obraren «dimentsio profetikoa» aipatzen duen. Ezaguna eta aipatua baita Mahatma Gandhiren aszetismo praktikoa amerikar poetaren pentsamenduan oinarritu zela. Haren zordun errekonozituen artean daude ere John F. Kennedy lehendakaria, Martin Luther King, William O. Douglas eta Thomas Merton eskubide zibikoen militanteak. Era berean, Lanza del Vastoren jarraitzaileek ere euren ekintza militante bilakatzeko orduan Thoreauren eragina aitortu izan dute.

Era berean, pentsamendu **politiko etikoaren** alorrean Thoreauren influentzia izan duten pertsonaliteen artean aipatzekoak dira Murray Rothbank, Albert Jay Nock edo John Rawls. Argi eta garbi dago ere, Thoreauk

inposak ez ordaintzeko erabilitako argudioak eta handik eratorritako «desobedientzia zibilaren» teoriak gogoeta-oinarrian egonak direla, John Rawlsek «Justiziaren teoria» (1971) obra idatzi zuenean.

Azkenik, **ekologia dimentsio politikora eramateko** orduan izan duen eragina azpimarratuko dugu. 1972ko martxoaren 19an, Frantzian, Larzaceko «La Cavalerie» gunean, orduan 75 urte zituen Lanza de Vastok, Héraulten kokaturik zuen «Communauté non violente de l'Arche» elkartearen sortzaileak, 15 eguneko gose-greba hasi eta, bertara, Millau hiriko biztanteak eta Montpellier eta Rodezeko apezpikuak gonbidatzean hasi zen gauzatzen. 1973an, 60.000 eta 100.000 pertsona inguru bateratu ziren Larzac-eko baserriarrak sostengatu eta «higadura-gerra» praktikatuko zuen mugimendu heteroklito bat formatzeko. Larzac-eko giro horren emaitza zuzena den Jose Bové politikoa aitortua du bere bokazioan eragin betea izan zuela Thoreauk «Walden Pond»en zutitutako etxola berreraikiak. Baina ez da bakarria ekologia politikoan mugitzen direnen artean influentzia hori aitortzen. Lawrence Buellek, 1995ean, argitaraturiko ikerketa batean erakusten denez, Murray Bookchin (1921-2006) eta Paul Goodman (1911-1972) ekologia sakon, ingurugirotiar eta libertarioan zerikusi zuzena ukan zuen Thorearen eraginak. François Specqek (2004), berriz, Estatu Batuetan, 1858az gero, errealtate den parke nazionalen antolakuntza egozten dio Thoreauri.

4. **Leon Tolstoï** (1828-1910) militar eta elizen miresle izatetik erreforma sozialak bultzatzea igaro zen, interpretazio libertario, antikapitalista eta kristau propio bat gurutzatuz pentsakera original baten jabe zela erakutsiz. 1857az gero sarri-sarri Errusiatik at bidaiatu zuen. Lehenik, Parisera heldu zen eta bertan Ivan Tourguéniev gidari izanaz frantses kultura eta arteak ezagutu zituen. Handik Suitzara joan zen. Hurrena, 1860an, Alemaniara joan zen eskoletako ikuskaritza-lanak eta pedagogiako metodoen ikasketak egitara. 1861ean Alexandro II.a enperadoreak esklabotasuna ezabatu zuen, eta, neurri hori gustuko zuelarik, berak ere esklaboak zituenez, haiek laguntzera joan zen, eta lur-ondasunen jabeen eta esklaboen arteko bitartekaritza egin zuen. Eta, azkenik, Europako hainbat hiri bisitatu zituen: Marseillatik Erromara, Parisetik Londresera, non Alexandre Herzen bisitatu zuen, eta Bruselan pausatuz Proudhonekin elkartu zen. Bien bitartean, bere obra nagusietarik izango zen Gerra eta Bakea (1869) liburua idatzi zuen. Bertan, Napoleonek 1812an Errusia inbaditu zuenean, gizartean itsatsirik zeuden klase sozial guttien erretratu historiko errealista bat zirriborrotzen da. Bizitza sozial konplexu haren xorroxtasunetatik gizakiaren psikologia eraikitzen du, eta hortatik abian giza bizitzan erroturik dagoen bortxaren historiaz gogoeta sakon bat egiten du.

Desobedientzari dagokionez, Ebanjelioaren irakurketan oinarrituz bortxaren arbuio absolutua predikatzen du. Kristau ikuspegitik injustiziaren aurrean intsumisioa aldarrikatzen du. Gainera, jarrera horren aldeko bi gerta-

kizun gogoratuko ditugu: 1894an, lehena izan zen ahantzia zegoen Henry Thoreauren testua itzaletik argira ateratzen Ingalaterran. Errusierara itzulia izan zedin jarraipena egin zuen. Gainera, Mahatma Gandhi influentziatu zuen bere idatziekin bortxa- eta kooperazio-ezaren bidean sartzen. Eta bizitzaren azken urteetan gutunezko harremanak zeuden bien artean, Tolstoïk, 1908an, «Hindu bati gutuna» argitaratzean. Bertan britainiar okupazioari aurka egiteko jarreratzat kooperazio-eza predikatzen du.

#### 4. Eta gaur egun zer?

Berriki, 2017an, Frédéric Gros Babéliok zinez desobeditu beharra birplan-teatu du. Nola arrazoitzen duen? Munduan, han-hemen, europar espaziotik at gauzatzen ari diren desobedientzia-forma berriak gogorarazten dizkigu. «Snowden afera», deiadar-jaurtitzaille gisa izendatu ostean, eta erresistentzia kolektiboaren hainbat manifestaldi berritzaile («occupy Wall street», «Hong Kongen euritakoekin» edo «Gaua zutik») lekukotzat ekarririk, gaiaren eztabaida-gogoetara igarotzen da. Funtsean, desobedientzia-ekintza, humanitatearen bihotzean bezala demokraziaren usadioetan txertatzen dela erakutsi nahi digu. Gaur egun, gure artean, politikak ageri duen enigma ikaragarriaren aitzinean, hots, munduan geroz eta larriagoa den lizunkeria eta jasanezina onartzean erakusten dugun kapazitatea arbuiatuz, La Boétiek jaurtitako eskandalu-irrintzira jasoaz, obedientzietatik desobedientziara itzularazi nahi gaitu. Subjektu politikoaren erroetan desobedientziaren aukera txertatzea litzateke bere liburuak leukakeen lehia, eta, horretarako, obeditzeko orduan darabiltzagun arrazoi guztiak desmitifikatzera eta desaktibatuzera igarotzen da; bidenabar, obedientzia hutsalak sortutako munstrokeriak zilipurdikatzen ditu. Hezkuntzako tratatu guztiek luzaz esan digute obedientziaren bidez zetorkiola gizakiari humanitatea —ondorioz desobedientziak gizakiarengan anarkia basatiarrenaren iratzartzea adierazten zuela—. Honela bada, xx. mendeak obedientziaren munstroak sortu ditu. Adibidetzat Eichmannen prozesua edo Milgramen esperientziak ditugu lekuko. Hori horrela, ezin esan al daiteke desobedientziak izan behar duela humanitatea berrasmatzeko birtarteko bakarra?

Desobeditu bai, baina nori eta noren eta zeren izenean? Ihardespina argia bezain garbia da: kapitalismo izarigabekoak sortutako injustizia sozialak, aberastasunen desberdintasunak, % 1 % 99ren aurka jardutera behartuta aurkitzen den munduak, aberatsenen eta pobreenen arteko zafraldi arrazoitsuak arautzen zituen klase ertainaren desagerpena ekarri izanak motibatu izan du autorea behingoz ehortzi behar den obedientzia hutsal horren gainean gogoatzera. Sinkronizaturik eta bata bestearen kausalitatea nabarmen agerian utzirik, gehiengo handienaren probretzea dakarren gutxiengo baten aberastasunak eta, horren aitzinean, gehiengoak duen pasibotasun masibo orokorrak, gutxiengo konplexurik gabeko zinikoak aurrez aurre jarduteko ausardia

duelako, ikusten dena ezin onarturik, obediencia/desobediencia, oraindai-nokoan ulertu ditugunean, zalantzan jartzera daramate autorea.

Zer-nolako arriskua hartzen dugu itsuki obeditzen jarraituz, edo eta galdera baikorrera bilakatuz, oraino denbora dagoenean desobeditzea uzten dugunean, zer aukera galtzen dugu? Bake zibila ez baita sosegu sozialaren sinonimo. Isiltasun maitekorrak zurian izenpetuaren baliorik ote du? Ezinbesteko eredu gisa inposatu nahi diguten kanpoko desordena orokortuak, idealak gehiengoaren barrenean ordena zartzera eramaten ahal baikaitu.

Zergatik da hain zaila munduko egungo ordena desobeditzea? Zer espazio opa diogu gure kontzientziaren askatasunari? Zera esaten baitzaigu: «obediencia komunitatea eraikitzen du»; aldiz, «desobeditzeak zatikatu egiten gaitu». Desobediente, bistan da, bakean bizi gaitzen tratatzen gaituena egiten dugu. Horrelakoa lirainen lapur, kaka-jartzaile, anarkista, grebalari, sabotaje-egile, aktibista eta salbaitzat ematen dugu. Hala ere, hain zaharra ez den historiak beste zerbait ere erakutsi digu: **Nurenbergen, lehen aldikoz, gizakiak obediteagatik zigortuak izan** zirela, alegia.

Desobeditu beharra benetako bizitzaren eskakizunei loturik doa. Gizakia-  
ren funtsezko substantzia baldintzatzen baitu. Gorputz eta izpituaren arteko itunaren emaitza baita.

Horregatik, estatuak zuzengabeko erabakiak hartzen dituenean, politika bidegabeak bultzatzen dituenean, gizabanakoa ez da sinpleki desobeditzeko baimena duen norbait, kontzientziaren izenean hautatzeko eskubidea lukeen norbait, alegia. Inolaz ere ez da horrela; desobeditzea betebeharra du, bere buruarekin zuzen izatea nahi badu, bera eta berea denaren artean zorigaitzeko dibortzio bat probokatu nahi ez badu. (Frédéric Gros 2017: 189)

Garbi geldi dadila, bada, desobediencia, ezeren gainetik eta lehen-lehenik altxamendu orokor izan aitzin, norberaren baitan gauzatzen den «bilkaraera espiritual» dela, norberaren barreneko erabaki bat. Ez da desobeditzen gainetiko mundu guztiak egiten duelako, modan dagoen korrontean sartzeko, ez eta ere agindu orokor aldarrikatu bat delako; aitzitik, barren-barrenetik erabakirik ordezkazinezkoenen jardule izanaz, mugimendu orokor batego aktore izan aitzin, norberaren ekintzen autore izan nahi delako.

## **5. Ondorioak eta ezinbesteko galdera bat: desobediencia zibilak errematea behar duenean, zer?**

Beste behin ere, bizi ditugun garaietan gertatzen ari diren injustiziei eman beharreko ihardespenei desobediencia etikoaren zigilua daramate. Gure gizarte «aurreratuetan», baita giza eskubide unibertsalen onarpen pu-

blikoa aho betean aitortuz botere publiko eta politikoa dutenen artekoetan ere, isildu eta gorde egiten baitira, erremediatzen inplikatu ordez. Nahiz eta inguruan daukaten jendearen gehiengoa geroz eta babesgabetuago ageri, eta miseriak eta sarraskiak eguneroko ogi bilakatzen ikusi, batzuetan *status quo* egoera pertsonalki atsengingarria zaielako edo, paso egitera daramatzala dirudi. Gizarteetako hainbat eta hainbat alorretan, bada, desobeditu beharra urgentziazko zerbait bihurtzen ari da. Horietako batzuk labur eta zehatz izendatu besterik ez dut egingo oraingoz. Hara hemen nagusiak.

Lehena, estatu-nazio europarrek, bakoitzak euren mugen barruan eta euren berezitasun historikoekin, baina gaur egun euren gizarteetan daukaten plurinazionalitatea eta kulturantzatasuna alde batera utziz, eta estatu horiek fundatzean egindako aukera unilaterial zapaltzaileei esker lortutako pribilegioak etorkizunerako ere jomuga-printzipio aldaezin deklaratu, injustiziak eta bidegabekeriak birsortzen jarraitzen dutenean, betebeharrak etiko bilakatzen ari da desobedientzia zibikoa mugimendu sozialtzat bideratzea. Estatu-nazio horien menpeko diren nazioei errebindikatzen dituzten estatu-erakundeak eskubidez zor zaizkiela kontsideratzen baitugu honako baldintza hauek betetzean:

- Gaur egun menperatzaile dituzten estatu-nazioen sorrera historikoan, gaur okupatzen duten lurraldean errotuak zeudela ziurtatzen denean.
- Noizbat jadanik «autonomia» ukana dutela demostratzean.
- Kultura jakin bat amankomunean daukatela ezagut daitekeenean.
- Hizkuntza propio baten jabe izatean.
- Eta erakunde propioekiko historia edukitzean.

Estatu-nazio europarrei bailegokie, desobedientzia zibikoaren bidez erakunde subiranoen postulatuak diren nazioei bermez hiritarrak kontsultatzeke baldintzak negoziatuz, etorkizuna hautatzeko eskubidea gauzarazten inplikatzeko.

Bigarrena, ikusita estatu-nazio europarretan gaur egun mamutzar den kapitalismo izarigabekoak sortutako injustizia sozialak, aberastasunen desberdintasunak, % 1 % 99ren aurka jardutera behartzen duen gizarte-egoera eta aberatsenen eta pobreenen arteko zafraldi arrazoitsuak arautzen zituen klase ertainaren desagerpena, hortik darion injustiziarik aurre egiteko, gizarteari dagokio desobedientzia zibikoa betebeharrak etiko bilakaraztea.

Hirugarrena, behin-behineko, estatu-nazio europarretan genero injustiziak itzaltzeko, emakumeari hala nahi duenean etxetik ateraz gizartearen plaza guztiak okupatzeko aukerak emanez eta errespetatuz, fiertasuna itzuliko dion desobedientzia zibiko betebeharrak etiko egiten ari da; indarkeria sexistak eteteko neurri ekonomikoak, sozialak, kulturalak eta instituzionalak bultzatuz. Baita artearen esparruan praktika feministak hedatuz, eta abar ere. Azken hau garrantzi handiko gerta daiteke, artea baita gizarteari era kritikoan

begiratur mundu berriak proposatzeko atalaia egokienetarik. Maleruski, estatu-nazio europarretan arazo hauei eta aipatu ez diren beste hainbati aurre egitean, egunero sumatzen dugu herabetasunez josita eta injustiziaz beteta jarduten dutela hainbat eta hainbat erakundek. Hortik irteteko ezibestekoa da desobedientzia zibikoaren betebeharra kontzientzietara eramanez borroka gizarteratzea.

Laugarrena, estatu-nazio europarretan natura eta ingurugiroari dagokienez bizi den nagitasuna eta mespretxua salatetik igarotzen ari da. Egia da Erromako Klubeko pentsatzaileek aspaldi piztu zutela alarma gai honekiko. Halaber, esaterako, Greenpeace, Les Amis de la Terre, edo Réseau Sortir du nucléaire mugimendu sozialek kontzientziak lantzen lagundu dutela. Baina estatu-nazioei desobedientzia etikoa egiteko ordua heldua da; ezinbesteko garrantzia daukan munduaren izaerarekin, osasunarekin jokatzeko ari direlako.

Jarrai genezake estatu-nazio europarretako injustizia egoeraren atal gehiago izendatzen, baina, gaurkoz, desobedientzia zibikoaren bebeharrak aurki litzakeen mugez eta gainditzeko dauden aukerez gogoeta eginaz itxiko dut saio hau.

Injustiziak borrokatzeko orduan, historian eraiki izan diren bideen artean desobedientzia zibilarena egokienetarik dela erakutsi digu hainbat gogoeta-saiok. Injustizia dariona boterean ongi gotortua eta bortxaz jarduteko eskrupulurik gabe agertzen denean, beharrezkoa deritzaigu jendea desobedientzia zibilera eramatea. Injustiziagilearekiko jendearen kooperazio-eza hedatzeak botereduna edo aginteduna bakardadera eraman baitezake. Ondorioz, bere agintea galerara eramaten ahal da! Baina, horrela denean, kasuren batean, beldurrak eraginda horietariko norbait noizbait gotorlekua eta gotortzeak zekarzkiekin utzirik eskapatzen ikusi izan badugu ere, beti ez da horrelakoa izaten, ezta gutxiago ere, satraparen amaiera. Orduan zer egin? Injustizia historiko baten amaiera probokatzeko, jendeak eskura dauzkan bitarteko guztiekin eraso (bortxazkoa izan litekeena) egin dezan onartu behar al da? Hala dirudi, Henry David Thorearen azken jarrera kontuan hartzen bada. Hainbat eta hainbat pentsalarik jada antzeko galdera eginga dute izen propioak eta gertakizun historikoak plazaratuz. Hitler erretiratzeko lain izaten al zen desobedientzia zibiko zorrotzaren eragin soilak? Gehienek uste dute ezetz! Nik neuk galdetuko nuke ere: «Operación Ogro» (1973ko abenduan) izan ez bazen, Francoren Erregimena itzaliko ote zen Espainia estatu-nazioan, 1978an, «Demokraziari» hasiera emateko? Francoren aurkako erresistentzia politikoa ahula baino ahulagoa baitzen erbesteetan, Errepublikatik ihes kanporatutako alderdietako buruzagiak funtzionario peto eta agure handi-maundiz josita agertzen zirelarik. Egia da, Espainia barruan, hirurogeigarren urteetatik aurrera, sindikalismoak arnasa pittin bat ematen ziola erresistentziari, baina Euskal Herritik kanpo ez zuen Erregimena kezkatzeko arriskurik erakutsi.

Horren osagarri, beste galdera bat legoke egiteko, ea bortxazko erresistentzia erabiltzea beti garaipenaren sinonimo ote den, alegia? Ez da horrela, noski! Hala ere, hainbat egoeratan hala da, hogeigarren mendean nazio-estatu gisa erakundetzea lortua duten 110 nazio kolonizaturen zerrenda daukagu horren lekuko. Gehienek bortxa erabili baitzuten askatasun-prozesuaren aldi batean edo bestean, edo eta prozesu osoan.

## Erreferentzia bibliografikoak

- DE LA BOÉTIE, Etienne (1548/1993), *Discours de la servitude volontaire*. Paris: Flammarion.
- BUELL, Lawrence (1995), *The Environmental imagination: Thoreau, Nature Writing and the Formation of American Culture*. Cambridge, Massachusetts: Harvard University Press.
- DAVIS, David B. (1975), *The Problem of Slavery in the Age of Revolution, 1770-1823*. Ithaca: Cornell University Press.
- FARCET, Gilles (1986), *Henry Thoreau, l'éveillé du Nouveau Monde*. Arnaud Desjardinsen hitzaurrea, Kenneth Whiten hitzatzea. Paris: Sang de la Terre; honela berrargitaratua (1990), «Espaces Libres», Paris: Albin Michel.
- GROS BABÉLIO, Frédéric (2017), *Désobeir*. Paris: Albin Michel/Flammarion.
- KLAUDIO HARLUXET FUNDAZIOA (1998), *Harluxet, Hiztegi Enziklopedikoa*. Donostia: Egin, 664 eta 1186.
- LOCKE, John (1690/ 1992), *Les deux Traités du gouvernement civil* (itzultzailea: David Mazel). Paris: Garnier-Flammarion. Haritz Monreal Zarraonaindiak itzulia euskarara, 2003, *Gobernu zibilari buruzko bigarren tratatua*, Bilbo: Klasikoak bilduma.
- LOCKE, John (1689/2009), *Essai sur l'entendement humain*. Paris: Librairie Générale Française.
- LOCKE, John (1660/1984), *Le Magistrat civil*. Caen: Centre de philosophie politique et juridique de l'Université de Caen.
- PEDRETTI, Mario (2001), *La figure du désobéissant en politique*. Paris: Étude de pratiques de désobéissance civile en démocratie, L'Harmattan.
- RAWIS, John (1971/1987), *Théorie de la justice* (itzultzailea: Catherine Audard). Paris: Seuil.
- REFALO, Alain (2006), «Les sources historiques de la désobéissance civile». *Colloque sur la désobéissance civile*, Lyon, martxoaren 17-18a.
- SPECQ, François, DASSOW WALLS, Laura & GRANGER, Michel (arg.) (2013), *Thoreauvian Modernities: Transatlantic Conversations on an American Icon*. Atenas: University of Georgia Press.
- THOREAU, Henry David (1849/1997), *La Désobéissance civile* [«Civil Disobedience»] (itzultzailea: Guillaume Villeneuve). Paris: Mille et une nuits.
- THOREAU, Henry David (2004), *Les Forêts du Maine* [The Maine Woods]. François Specq (arg.), itzulpena, oharra, ohar-kritikoa (365-522 or.), kronologia, bibliografia. Paris: Éditions Rue d'Ulm.
- THOREAU, Henry David (1854/1990), *Walden, ou la vie dans les bois* [«Walden or Life in the Woods»] (itzultzailea: Louis Fabulet). Paris: Gallimard, coll. «L'Imaginaire» (239. zk.).
- TOLSTOY, Leon (1869), *Guerra y paz* (Война и мир). Madril: Biblioteca Nacional de España.